

2006ko OTSAILAREN 6an - 5.alea**informazio**

Mahai parekidea otsailaren batean honako gai ordenarekin batzartu zen:

• ANTZINATASUNA.

Beste erakunde publikoetan emandako zerbitzuak jadanik eskatu daitezke, otsailen zehar eskatzeko epea zabalduko da.

• ERRELEBO KONTRATUA.

60 urte edo gehiago dituzten langileek errelebo kontratua aplikatzea eskatu dezakete.

• ORDAINSARIEN EGUNERATZEA

LABek KPI + 0,5 eskatu du. Hala eta guztiz ere, hurrengo bileran igoera zein izango den adostuko dugu.

• ZERRENDEEN IREKIERA

Haurreskolak Partzuergoak, ohi den bezala, aurreikuspen falta berriro erakutsi du. Ordezkapen zerrendak ia agortuta daude eta lan egiten ari den jendea barematu barik zabaldu nahi ditu.

LABek beti eskatu eta esan du baremazioa ezinbestekoa dela.

• 4 TXANDAKAKO EGUNAK

Partzuergoak "oporretako 4 egun aukeratzeko eskubidea" (Hitzarmeneko 22. artikulua) murriztu nahi du. Batzorde Parekidean sindikatuoi aurkezten digun proposamenaren arabera, zentro bakoitzeko hezitzaileen %33ak 4 egun horiek derrigor uztailean hartu beharko lituzkete. Horren arrazoia da modu horretara Partzuergoak erraztu egingo lukeela bere kudeaketa lana, eta gainera murriztu egingo lukeela kontratatu beharreko ordezko kopurua. Izan ere, enpresak aurre ikusten du uztailean haur gutxiago joango dela haur eskoletara, eta horretaz baliatu nahi du dirua aurrezteko.

Guri zerbitzuaren eskaera gutxituko delakoan langileen jai egunekin jokatzeko ez zaigu bidezkoa iruditzen. Proposamen hau Hitzarmenean jasotzen denaren aurkakoa da, eta langileek libreki aukeratzeko jai egunak erabili nahi dira enpresaren interesen mesedetan. Egun horiek langileak aukeratzekoak dira, ez enpresaren beharretara moldatzekoak.

Zerbitzua bermatzea eta egokitzea (eta beraz, ordezkapenak eta ziurtatzea) enpresaren egitekoa da. Gure ustez arazoa ez da nola kudeatu langileen txandakako lan egunak, baizik eta nola kudeatu ordezkapen lan poltsa, nolako baremazioak egin, nola hartu aintzakotzat ordezkapenak zerrendak osatzeko, nola ziurtatu gutxieneko kalitateko lanpostuak eta iraunkortasuna...

LAB sindikatua eskubide hauen defentsan bakarrik geratu da, baina ez dugu etsiko eta tinko mantenduko gara borroka honetan.

www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/haur

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatua.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 82, 48010	tl. 94 470 69 24	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatua.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 82	• fax 943 45 66 45	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatua.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatua.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatua.org